

# txintxarri



## Hogeita bost urte Zabaleta auzoa eraikiz

Mende laurdeneko ibilbidea egin du zabaletako auzo elkarteak. / 6-9

TXINTXARRI

# Protesta Zubietan

Ekintzez beteriko erraustegiaren aurkako eguna ospatuko dute bihar /3

Dantzari txiki eta heleduek dantza erakustadiak egingo dituzte asteburua zehar herrian / 5

Alazne Gonzalez Gipuzkoako txapeldun gimnastika erritmikoko senior B kategorian / 10

**HERNANI LANBIDE HEZIKETA**  
Gizarte Berrikuntzako LH-II - CIPF Innovación Social  
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## HEZIKETA ZIKLOAK

www.hernanilanh.eus

f t y hermanilanhii

**ZATOZ edo DEITU!!**

2017-2018 ikasturtea  
**AURREMATRIKULAZIOA**  
Ekainaren 5tik 16ra

Fabrikazio Mekanikoko diseinua

Animazio soziokulturala eta turistikoa

Sistema elektroteknikoak eta automatizatuz

Elementu metalikoen fabrikazioa (A-D ereduak)

Mantentze-ian elektromekanikoak (D ereduak)

Mekanizazioa (B-D ereduak)

Instalazio elektrikoak eta automatikoak Mekanizazioa (A ereduak)

Karmelo Labaka 7 - 20120 Hernani (Gipuzkoa) Telf: 943 56 19 58 - Fax: 943 33 05 50  
idazkaritza@hernanilanh.eus



Bertaratutako saridunek talde argazkia atera zuten epaile eta Udal ordezkariekin. TXINTXARRI

## Guztion Lasarte-Oria sariak banatu dituzte

Bernat Solsona bartzelonarraren 'Wild' muralak irabazi du 2017ko Guztion Lasarte-Oria saria. Aurtengo edizioan 39 zirriborro baino gehiago aurkeztu dituzte leku ezberdinetatik etorritako artistek

### Txintxarri

Lasarte-Oriako puntu-beltzak "duintzea" da Guztion Lasarte-Oria lehiaketaren asmoa. Hori dela eta, herriko zenbait gunetan muralak margotu dituzte leku horiek "atseginagoak eta erakargarriagoak bihurtuz". Bide batez, herriaren "irudia hobetuz eta jarduera ekonomikoa indartuz".

Pasa den ostiralean banatu ziren 2017ko sariak, eta Jesus Zaballos alkateak nabarmendu zuen aurten ere "pozik" daudela jasotako ekarpenekin.

Bernat Solsona bartzelonarrak eskuratu du lehen saria, Goenkale kalean kokatutako 'Wild' muralarengatik, 1.500 euroko saria lortuz. Enara Conde izan da bigarrena 'Aniztasuna' obra margotzeatik. 1.250 euro poltsikoratu ditu. Karmele Gorroñok eta Irene Iruretak batera egindako bi lanek hirugarren eta laugarren postua lortu dute. Azkenik, bosgarren geratu da Olaia Martinezen 'Guztion artean egin dezakegu'.

Irabazleak ezin izan zuen sari banaketan egon. Antolatzaileek jakitera eman zutenaren arabera, "etortzeko gogoz zen, baina ezin izan zen bertaratu".

24 artistek, guztira, 39 zirriborro aurkeztu dituzte Goikalen, Buruntza kalean, Jaizkibel plazan, Donostia etorbidean eta Andatza plazan muralak margotu ahal izateko. 13 emakumek eta 11 gizonek hartu dute parte-Lasarte-Oriako hiruk, Gipuzkoako beste herrietatik 12k, Bizkaiatik seik, Arabatik bik eta Bartzelonatik batek.

### Berdintasuna aldarrikatuz

2017ko Guztion Lasarte-Oria sarian aurkeztu beharreko mural proposamenek baldintza bat bete

**BERNAT SOLSONAREN 'WILD' LANAK IRABAZI DU AURTEN; GOIKALE KALEAN KOKATUTA DAGO MARGOLANA**

behar zuten: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzea.

Gauzak horrela, hori izan da epaimahaiak aztertu eta epaitu duen gako nagusi bat, beste irizpide artistiko batzuekin batera, noski.

Puntuak emateko ardura bost pertsonak eduki dute aurten: programaren kudeatzaile Nagore Goñik, Aire Libreko museoren kudeatzaile Amaia Rodak, Aterpea elkartereko Noelia Calerok, Ricardo Ugarte eskultoreak eta unibertsitateko irakasle eta arte kritikari Fernando Golvanok.

Denen artean ondorioztatu dute Bernat Solsonaren lana izan dela aproposena, baina guztiek egindako lana eskertu dute Udal ordezkariak.

Izan ere, helburu nagusia herriko puntu beltzak biziberritzea izanik, pertsona anitzen ekarpenak jasotzearen garrantzia nabarmendu nahi zuten. Hurrengo urtera begira ere, lanean jarraitzeko asmoa agertu dute.



Gazteak boluntario lanetan aritzera gonbidatu zituzten. TXINTXARRI

## Bizipoza proiektua lagunduko dute Kuadrillategiko gazteek

KTG egitasmoko gazteek 150 euroko ekarpena egin dute Bizipoza proiektuari bere lanean laguntzeko

### Iñigo Gonzalez

Gertu-gertutik ezagutu zuten KTGko gazteek Bizipoza egitasmoa ostiral arratsaldean. Saio berezia egin zuten anbulategiko erabilera anitzeko gelan, hainbat gonbidaturekin: Leire Elizegi Bizipoza proiektuko kidea, Sanfilippo eritasuna duten haurren eta euren familien alde boluntario lanetan aritzen den Nerea Godoi eta Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx'. Hiruek azaldu

zieten gazteei zertan den aipatu egitasmo hori.

Kuadrillategiko kideek erabaki dute aurten egin dituzten egitasmoetan (KTG Sutan jaialdia, esate baterako) bildutako irabazien zati bat Bizipozari donatzea. Atzo egin zuten ekitaldi sinbolikoa, saioaren amaieran.

Alor desberdinetan lanean ari diren 33 elkarte ari dira parte hartzen uneotan Bizipozan, "euskaraz eta euskararentzat".



TXINTXARRI

## Palomo Linares elkarteak 50 urte

Urrezko ezteiak ospatu zituen igandean Lasarte-Oriako Palomo Linares Elkarteak. Merezki bezala ospatzeko, bazkideek bazkari-legea egin zuten egoitzan bertan. Hori baino lehen, zendutako bazkideak izan zituzten gogoan, 12:00etako mezan. Bazkideez gain, orain gutxi hil de Palomo Linares bera ere gogoan izan zuten.

# Erraustegiaren aurkako eguna ospatuko da bihar

Egunari hasiera ematearekin batera, hitzaldiak, haurrentzako tailerrak, herri bazkaria eta beste zenbait ekintza antolatu dituzte biharko. Zubietan egingo da erraustegiaren aurkako eguna, baina hemendik kanpoko esperientziak entzuteko aukera ere izango da

## Maddi Noriega

Beste behin, erraustegirik ez dutela nahi esateko, Erraustegiaren aurkako eguna egingo dute bihar, Zubietan.

Goizeko 11:00etako ongi etorri ekitaldia amaituta emango zaio hasiera egitarauari, eta hamaika ekintza antolatu dituzte egun osoan zehar.

Kaxkapeko aretoetan zenbait hitzaldi entzuteko aukera edukiko dute bertaratutakoek. Besteak beste "Nafarroan errausketarik gabeko Hondakin Plana", "Errausketa eta nekarizitza" eta Valdemin-gomezeko esperientziak izango dituzte mintzagai.

Goizean zehar, umeentzako jolas eta tailer eremuak ere prestatuko dituzte.

Adierazpena irakurri ostean, herri bazkari goxoa dastatuko dute bertaratutakoek. Lasarte-Orian, Orbela belardendean eskuratu ahal dira otorduko txartelak.



Obra hasi aurretik elkarretaratze zaratsua egin zuten Lasarte-Orian. TXINTXARRI

## Obra eremura martxa

Gipuzkoa Zutik herri mugimenduak ere zenbait ekintza antolatu ditu biharko egunari begira. 12:00tan, Zubietan, "Euskal Herrian ere %1 vs %99" izenburupean iritzi trukea egitea proposatu dute.

Bazkalostean, berriz, erraustegia eraikitzen hasi diren gunera egingo dute martxa. "Proiektu ustelaren aurka" desadostasuna agertzea du helburu ekintzak.

Kartzela egingo duten lur eremua ere bisitatzeko asmoa erakutsi dute antolatzaileek.

## Hari doinuak, operak eta zarzuelak hasteko

Lirica Itsaso eta Kamerata Oiassoren emanaldiek ireki dute V. Musika Astea. Asteburu honetan jarraituko du.

### Txintxarri

Hari doinuekin eta opera zein zarzuelekin hasi da aurtengo Musika Astea. Danok Kidek eta Lasarte-Oriako Udalak antolatzen dute ekitaldia, elkarlanean. Bosgarren edizioa da aurtengoa.

Lirica Itsasok errepertorio zabala eskaini zuen larunbat arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean. Bitan banatu zuen egitaraua: lehenengo zatian, operak. Bigarrenean, berriz, zarzuelak. G. Verdiren 'Vedi le fosche notturne spoglie', G. Bizeten 'Habanera' edota



Lirica Itsasoren emanaldia. TXINTXARRI

Mascagniren 'Gli Aranci Olezano' piezek osatu zuten operen zatia. Zarzuelenean, berriz, Chuecaren, 'Coro de Niñeras', Echegaray eta Eizaguirreren 'Luchando tercios y rudos' edota Soutullo eta Verten 'Ronda de los enamorados' entzun ahal izan zituzten aretore bertaratutako ikusleek.

Ostiral arratsaldean, berriz, Kamerata Oiassoren txanda izan zen. Biolin, biola, biolontxelo eta kontrabaxu jotzaileek osatzen duten soka orkestrak emanaldi atsegina eskaini zuen Brigitarren komentuan.

Asteburu honetako emanaldiak kultur etxean izango dira. Gaur, 19:30ean hasita, 'La del manojo de rosas' zarzuela ikusi ahal da. Bihar, ordu berean, Irungo kontserbatorioko kideek kontzertua eskainiko dute.

## NEURE KABUZ



JEXUX ARTETXE

## Memoriaren Plaza

Joan den hilean izan zen Memoriaren Plaza gure artean. Okendo plazan altxatuko karparen barruan eskainitako programazioaren arabera, indarkeriak iraun duen urteetan izandako kalte eta sufrimenduaren lekukotzak entzun eta ikusi ahal izan genituen. Aukera izan dugu, halaber, gure iritzi edo testigutza adierazteko ere.

Hainbeste da erakusgai dagoena, ezinezkoa dela behar den bezala eta hain denbora gutxian guztia barneratu. Agian, Gogora institutuak bultzatutako Memoriaren Plazak egun gehiago egin beharko lituzke udalerrri bakoitzean. Edo bestela, udalek ere tokiko memoriaren zabaltegi propioa sortzea badutela iruditzen zait, lekuan lekuko gertaerak jakitera emateko.

Karparen azpiko erakusketa gunearen baitan, indarkeriaren biktima izan diren lekukotza zuzena, begiz begikoa, jaso izan genuen. Josu Elespek, Manoli Urritegik eta Feli Goikoetxeak egindako aitorpenak dardaragarriak izan ziren benetan. Goraipatzekoa da zoritzarreko bizipen horietatik nola atera diren arranguririk gabe, gizabideari bizkar eman gabe. Ikasbidea ere emankorra, benetan.

Urteetan bizitakoaren eskarmentuaren inguruan antolatzen dugu giza-pentsamoldea. Oroitzapenik gabe, ezin da jokabide moralik eduki. Izan ere, ongia eta gaizkia zer diren ezagutu eta auzokideekin partekatu gabe ez dago elkarrekin bizitzerik.

Terrorismoak kalte handia egin dio gure herriari, lorratz sakoneko zauriak utzi dizkigu auzo eta herrietan, erabat sendatzen asko kostako zaizkigunak. Iraganaren memoria hutsera botatzen badugu ordea, gertatutakoaren kontraerarik egiten ez badugu, gure minak zornatu egin daitezke. Indarkeriaren aroari bukaerarik eman nahi badiogu behinik behin, sufrimenduaren Memoria gure herriko plaza eta kaleetan sustraitu beharko genuke. Horregatik, Memoriaren Plaza bezalako ekimenak oso eskergarriak dira. Eskertzekoa, beraz, Gogora institutua eta Lasarte-Oriako udalaren arteko elkarlana, guztion izenean biktimen Oroimenaz arduratu direlako.

## Buruhandi eta erraldoien konpartsa

Lasarte-Oriako buruhandi eta erraldoien konpartsak deialdia egiten du aurtengo San Pedro jaietan konpartsarara gehitu nahi duen adin nagusiko orori. Horretarako 661054022 telefono zenbakira deitu.

DITESTON Taldeko agentzia

**NOAOA**  
BIDAIAK

Lasartetik irteera  
Noaoaren laguntzarekin

**POLONIA**

Abuztuaren 29tik  
irailak 5 arte

Tel: 943 373 613 • info@noaoa.eus • www.noaoa.eus  
Hipodromo Etorbidea 10, 20160 LASARTE-ORIA

# PLAZAN BAZAN

## ZORTZI ALDEAK

Aurkitu bi irudi hauen artean dauden zortzi aldeak



Hilabeteko azken Txintxarri aldizkarian haurrentzako denborapasak aurkituko dituzu: jolastu Maripurtzil eta Pellozirirekin! Soluzioak eta jolas gehiago, [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) atarian. Sartu eta gozatu!

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

### 3 SUDOKU


Ipini sudoku bakoitzeko letrak dagokien tokian. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau laukiko area bakoitzeko.

B			I
L		B	
	A		



A		Z
	P	
	Z	
O		

BLAI ala BILA?



ZAPI ala AZPI?

A	P		
		A	
			I
		Z	

### Hau gosea!!

Ezagutzen al duzu Herri Urratseko paella ospetsua? Sarako ikastolakoek zerbitzatzen dute eta 600 lagun inguruk jaten dute bertatik. Aurtengo sukaldaria despistatu xamarra da eta hainbat gauza galdu ditu lanean ari zela.



Bilatu:

- Lepokoa
- Igela
- Peluxea
- Txanpon zorroa
- Barraskiloa
- Eulia
- Giltza
- Giltza ingelesa



Zenbat pegatina ikusten dituzu?



Euria eginez gero, Michelingo frontoian egingo dute igandeko ekitaldi nagusia TXINTXARRI

# Dantza izango dugu protagonista asteburuan

Bihar eta etzi Dantzari eta Dantzari Txiki egunak ospatuko dira Lasarte-Orian, Erketz Euskal Dantza Taldeak antolatuta. Ekintzaz beteriko egitarau zabala antolatu dute bi egunetarako

## Txintxarri

Herriko kale eta plazak musika eta dantzaz beteko dira larunbat eta igandean. Erketz Euskal Dantza Taldeak antolatuta, Dantzari eta Dantzari Txiki egunak antolatu dituzte, hirugarren eta hogeita bederatzigarren aldiz, hurrenez hurren.

## Dantzari eguna

Arratsaldeko 18:00tan emango zaio hasiera 2017ko Dantzari egunari. Aurten, bi gonbidatuen bisita jasoko du Lasarte-Oriak, antolatzaile diren Erketz EKT-ekoekin batera dantzan arituko

direnak. Usurbilgo Orbeldi eta Kantabriako Suances herriko Virgen de las Lindes y del Carmen taldeek dantzatuko dute bihar.

Desfilea 19:00tan amaituko da Okendo plazan. Ondoren, ordu-beteko saioa egingo dute.

## Dantzari txiki eguna

Gaztetxoek hartuko dute txanda igandean, goizetik arratsaldera bitarteko egitarauarekin.

Gipuzkoako sei taldek hartuko dute parte aurtengo ekitaldian: Urretxuko Lurrak, Errenteriako Ereintzak, Andoaingo Urkik, Añorgako Arkaitzeko eta

Lasarte-Oriako Kukukak eta Erketzek.

11:00etan denak batuko dira Andatza plazan, eta ordu erdi beranduago herriko auzoetan zehar dantzatuko dute.

Bazkari goxoa egingo dute 14:00etan arratsaldera begira indarrak berritzeko asmoz.

Okendo plazatik abiatuko dute desfilea arrastian. Hipodromo etorbidea, Tajamar eta kale Nagusia zeharkatuz. 17:00tan, plazan egingo dute emanaldi nagusia.

Bestalde, asteazkenean Udal dantza eskolak kurtso amaierako ekitaldia egingo du.

## Ostegunean hasiko dituzte Sorgin Dantzako entseguak

Astearte eta ostegunetan elkartuko dira aurtengo San Pedro jaietan Sorgin Dantza dantzatuko duten lagunak

## Txintxarri

Herriko jaiak heltzear dira, eta haiekin batera, Sorgin Dantzan parte hartuko duten lagunak datorren astean hasiko dituzte prestaketak.

Asteartean eta ostegunetan elkartuko dira Okendo plazan, hilaren batetik aurrera. Ordu-beteko iraupena izango dute entseguak, arratsaldeko 20:00tatik 21:00etara.

Antolatzaileek jakinarazi dutenaren arabera, euria edo eguraldi txarra egingo balu, Garaikoetxea eraikinean egingo

lituzkete dantza saioak. Ekainaren 22an egingo dute azken entsegua.

Izen ematea doakoa da, eta parte hartu ahal izateko entsegetara bertaratzeko besterik ez da behar.

Sorgin Dantzako zapiak ere eskuratu ahal izango dira entsegetan. Algodoizkoek bederlatzi euroko kostua izango dute, eta akrilikoek laukoa.

San Pedro egun bezperan, ekainaren 28an, dantzatuko dute herriaren aurrean. Festetako lehenengo egunean, alegia.



TXINTXARRI

## Margotutakoa erakusten

Brancussi margolaritza akademiako ikasleen lanak Antonio Mercero aretoan daude ikusgai ostiraletatik. Ekainaren 2ra arte daukate herritarrek bertara joan eta ikasle gazteen artez gozatzeko. 18:00tatik 20:30etara bisitatu ahal izango da erakusketa.

**BIO  
TERRA  
2017**  
14. EDIZIOA

# GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€  
(12 urte arte doan)

Gonbidapen hau moztu eta azokaren sarreran aurkeztu

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka

## 2 · 3 · 4

Ekaina **FICOB A  
IRUN**

**EKO esperientzia bizi ezazu!**

[bioterra.ficoba.org](http://bioterra.ficoba.org)

Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak • Bioeraikuntza eta efizientzia energetikoa • Osasen eta ongizate jasangarria • Yoga day • Bioterraza • Biobeauty Gunea • Show cooking • Haurrentzako aktibitateak • Zozketak...

**euskotren**

ANTOLATZAILEA



Mende laurdeneko ibilbidea modu berezian ospatu asmoz, berrikuntzak izango dira datorren asteburuan Zabaletako jaien egitarauaren baitan. TXINTXARRI

# "Hogeita bost urte eta gero lanean jarraitzea pozgarria da"

**ZABALETA AUZOLAN ELKARTEA HOGEITA BOSGARREN URTEURRENA BETE DUTE**

Ate joka dira Lasarte-Oriako Zabaleta auzoko festak. Ostiralean, Teresa sorginaren jaitsierarekin emango die hasiera ofiziala, baina asteartetik ostegunera ere ekintzak izango dira. Aurtengo ospakizunak berezi izango dira elkartearentzat; 25. urteurrena bete dute

## Maddi Noriega

Hogeita bost urtetan, ibilbide luze eta oparoa egin du Lasarte-Oriako Zabaleta Auzolan elkarteak.

1991. urte amaieran, abenduan, eman zituen lehen urratsak eta orduaz geroztik, etenik gabe, mende laurdenez auzoaren alde lanean dihardute elkarte kide eta auzotarrek.

Antonio Blas auzokideak eman zuen bide auzoko festak antolatuta eta hogeita bost urteetako lanari bultzada emateko; "berari esker

hasi zen guzti hau", azaldu dute elkarte kideek, eta harrezkero, hamaika ekintza, ekitaldi eta festa antolatu dira Zabaletan.

Bi helburu nagusirekin batu eta sortu zuten aipatu elkarteak; auzoan sumatutako zenbait beharri aurre egin eta Udalarekin harremantzeko asmoz batetik, eta auzoko ekintzak antolatu eta sustatzeko bestetik.

Ordutik hona ordea, aldatzen ari da Zabaleta. Azken urteotan,

etxe ugari eraiki dituzte bertan, eta horrek asko haziarazi du Lasarte-Oriako gainaldeko aipatu auzoa.

Orain, belaunaldi berrien laguntzarekin batera, talde majoa osatzen dute eta prest dira auzokideak Zabaletaren alde lanean jarraitzeko.

Bide horretan antolatu berri dituzte datorren asteartetik igandera bitarte ospatuko diren festak eta guzti hontaz hitz egiteko elkarte kideekin izan da TXINTXARRI.

## Noiz eta nola osatu zenuten Zabaleta Auzolan elkarteak?

Zabaleta Auzolan elkarteak 1991. urteko abenduan sortu zen.

Bi arrazoi nagusi asebetetzeko osatu genuen elkarteak; lehena, udalarekin mantendu beharreko harremanak landu eta koordinatzeko asmoz, eta auzoko ekintzak sustatzeko antolatutako ekintzak sustatzeko, bigarrenik.

Auzokideok behar batzuk ikusi genituen Zabaletan, baina Udalak ez zuen irtenbiderik ematen. Elkarteak bere funtzionamendurako behar duen espazio itxi baten eta frontoi baten beharra ikusi genuen, beste hainbaten artean, eta horiei auzo gisa erantzun eta udalarekin interlokuzioa eduki asmoz osatu genuen elkarteak.

## Zer gertatu da gune estali edo frontoiarekin?

26 urteren ostean, oraindik ere lortzeke dauden bi proiektu dira.

## 1991. URTE AMAIERAN, ABENDUAN, OSATU ZEN ZABALETA AUZOLAN ELKARTEA

## ELKARTEA OSATU BAINO LEHEN FESTAK ANTOLATU ZIREN BI URTEZ

Frontoia etxebizitza berriei lotuta doan proiektua da, eta lokala edo espazio itxia, berriz, udalaren borondatearen baitan dago.

## Non biltzen zarete orduan auzo elkarte bilerak eta aurrera eramateko?

Orain hogeita bost urte, Antonio Blas auzokideak, bere garajea utzi zion elkarteari. Bertan biltzen hasi ginen eta oraindik ere, gaur egun, bertan egiten ditugu bilerak eta baita zenbait ekintza ere.

Ekintzak aurrera eramateko espazio estalirik ez daukagunez, eguraldiaren menpe jarraitzen dugu eta edozein ekintza antolatzen dugula, eguraldiak izugarri baldintzatzen gaitu.

## Nolako bilakaera izan du Zabaletak mende laurdeneko ibilbidean?

Azken urteetan Zabaleta auzoak eta Auzolan elkarteak aurrera eramandako ekintzak direla eta, bilakaera nabarmena izan du. Gure baliabideekin, auzokideen laguntzarekin zein parte-hartzearekin eta Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin eraman ditugu aurrera gure auzoan antolatutako ekintzak.

## Eta elkarteak sortu eta orduan hasi al zineten auzoko festak antolatzen?

Ez. Zabaleta Auzolan elkarteak sortu aurretik, urtebete lehenago, auzoko festak antolatu genituen.

Honetan, Antonio Blas izan zen aitzindaria. Berari esker hasi zen guztia.

Garai haietan, plazan egiten zen bizitza. Aurretik aipatu moduan, gaur egun oraindik ere auzo elkartearen lokala den garajea berea zen, eta sagardo apur baten bueltan, bertan elkartuta, auzoko festak antolatzea erabaki zen. Lehen festak antolatuta, Zabaleta Auzolan elkarteak sortu zen gero. **Garrantzitsua izan da Antonio Blas orduan Zabaleta Auzolan elkartearentzako.**

Bai, oso garrantzitsua, bera izan zen elkarte kideen lehen lehendakaria, guzti honi hasiera eman ziona.

Euskaraz jakin ez arren, berak animatu zituen auzokideak lehen festak (euskaraz) antolatzea, lehen ekintzak aurrera eramatera eta aurrez esan dugun moduan, berea zen garajea utzi zigan auzo elkarte lokal gisara erabiltzeko.

Lehen aldiz festak antolatzen hasi ginenetik, bi helburu markatu genituen; euskaraz eta ondo pasatzeko izan zitezela.



Beste hainbat ekintzen artean, otsailean, inhaulerietako desfilean parte hartzen urte mordoia daramatzate Zabaletako bizilagunek. TXINTXARRI

### Nola antolatzen da gaur egun Zabaleta Auzolan?

Bi bereizketa nagusi egin behar ditugu hemen. Batetik, auzo elkarte dago eta bestetik, berriz, festetako batzordea. Azken honetan parte hartzen dutenek ez dute zertan auzo elkarte kide izan.

Elkarteari dagokionean, estatutuek markatzen duten moduan, lehendakari bat du, idazkari bat, kontu-hartzailea eta bokalak ditu.

Horrela, urtero, batzarra egiten da eta bertan, kontuen berri ematearekin batera, urteko ekintzen balorazioa ere egiten da.

Normalean, batzordeko kideek gutxienez bi urtetarako konpromisoa hartzen dute, eta denbora hori pasata berritzen dira partaideak.

Festa batzordea, auzoko festak antolatzeaz arduratzen da eta auzo elkarteak berriz, urtean zehar aurrera eramaten ditugun beste hainbat ekitaldi ere antolatzen ditu.

### Gaur egun, zenbat kidek osatzen duzue elkarteak?

Egun, 140 bazkidez osatua dago. Azken urteetan Zabaleta auzoa zenbat hazi den ikusita, jende berria gehitu al da elkartera? Jarraitzen al dute belaunaldi berriak?

Urte hauetan guztietan, normalean, mantendu egin da elkarte kideen joan etorria,

baina sorpresa handia hartu genuen gabonetako neguko ekintzan, olentzeroan.

Jende berri dezente gehiago bildu ginen aipatu ekintza horretan eta pozgarria izan da hori guretzat.

Ezin ukatu liteke urte batzuk ataskatuta egon garela, baina garai batean Zabaletako auzokide izan zirenak, gero urte batzuk auzotik kanpo bizi arren, etxe berrien eraikitzearekin berriz ere bueltatu egin dira, eta horien inplikazioa ere geroz eta nabarmenagoa da. Inplikazio hori mantentzeko lan egin behar dugu orain.

### Urtean zehar beraz ekintza bat baino gehiago antolatzen daramatzazue urte mordoia.

Bai hala da. Urte hasierarekin batera, urtarrilean, gaztetxoentzako irteera bat antolatzen dugu, eta horrekin batera, baita babarrun jana ere.

Otsailean, Santa Ageda egunean santa-eskean ateratzen gara auzoko baserrietatik barrena eta horrekin batera, inhaulerietako desfilean ere parte hartzen dugu. 1991. urtean hasi ginen inhaulerietan parte hartzen eta aurtun, adibidez, 90 pertsonako taldea osatu dugu.

Ekaineko ekintza nagusia, auzoko jaiak izaten dira, baina horrekin batera, udako festaren harira, San Juan sua ere egiten dugu.

Garai batean egiten zen ekintza bat berreskuratu dugu azken urtetan; gamusino bila. Orain urte batzuk ume gisa hortaz gozatu ahal izan zuten gaurko gazteek erreperatu dute ekintza hori.

Irailean, auzoko irteera prestatzen dugu eta urritik abendura ere, hilabete bakoitzean izaten dugu ekintzarik; Udazken festa (sardina jana) urrian, hitzaldiz beteriko aste kulturala azaroan eta urteari amaiera emateko neguko festa, Olentzeroa, abenduan.

### Hitz egin dezagun urtemugaz orain... urte berezia da aurtengoa zuentzat.

Programazio berezia izango da aurtengo festa asteburuan txertatuta.

Hasiera batean, asteburu honetan (festen aurreko asteburuan) egin nahi genuen urteurren ospakizuna eta proposamen hori luzatu genion Udalari, baina datorren asteburuan auzoko festak izango zirela eta, dena elkarrekin egiteko proposamena egin ziguten haiek eta horrela egingo dugu azkenean.

### Hogeita bosgarren urteurren hori modu berezian ospatzeko, izango al da ekintza berezirik aurtun?

Bai, noski, baina aurrez esan moduan, festen egitarauaren barruan txertatu dugu.

Urteurrena ospatzeko, Zo-Zongo eta Gozategi musika taldeak izango

ditugu, besteak beste, datorren larunbatean eta igandean.

### Eta gainontzean, nolako festak prestatu dituzue aurtun? Izango al da berrikuntzarik?

Orokorrean, aurtengo jaien bizkarrezurra aurreko urteen antzerakoa da, urteroko ekitaldiak mantentzen dira aurtengo egitarauan ere.

Asteartetik ostegunera bitarteko haurren jolasak eta antzerkia adibidez, urtero izaten dira Zabaletan, baita sorgin dantza herrikoia, larunbateko bertso saioa eta rock gaua, igandeko proba mistoa, bazkaria, Kukukaren dantza emanaldia eta beste zenbait ekintza ere.

Baina izango dira berrikuntza bat baino gehiago ere, hala nola, ekainaren lehenean, iluntzeko 20:15ean ikusgai izango dugu

## HOGEITA BOST URTE ETA GERO, GAUR EGUN, 140 BAZKIDEX OSATZEN DUTE ZABALETA AUZOLAN

## URTEURRENA OSPATZEKO PROGRAMAZIO BEREZI IZANGO DA AURTUN FESTETAN

Erradikalak Gara antzezlan, ekainaren hiruko arratsaldeko Txan magoaren saioa, iluntzeko zikiro afaria eta akelarrea.

### Akelarrea izango da aurtun. Sorgin izango dira noski bertan. Jaien zaindari nagusia ere Teresa Sorgina duzue Zabaletan. Nolatan sorginaren irudia?

Orain urte batzuk, Teresategin eraiki asmo zuten industrialdea zela eta jarri genion Teresa izena gure jaien ikur den sorginari, eta orduaz geroztik, horrela mantendu dugu, (hortik dator sorginaren jaitziera ere). Auzo honetan sorgin ugari dago! -barre egiten dute elkarte kideek-.

Alejandro Romo da Teresa sorginaren egilea.

### Hitz egin dugu auzoaren egun arteko bilakaeraz, baina etorkizunaz galdetuko bagenizue?

Nabarmena da auzoa etengabe aldatzen ari dela. Etxebizitza dezente eraikitzen ari dira eta oraindik ere gehiago eraiki asmo dituzte.

Zabaletan hazi eta herriko beste auzoren batera, zein beste herri batera bizitzera joan diren gazteak ere bueltatzen ari dira, eta lasarteoriatarak ez diren auzokide berriak ere baditugu. Horren ondorioz, bizilagun eta auzokide gehiago gara eta auzoa nabarmen gaztetzen ari da.

Egoera honen aurrean, hausnarketa prozesu bat hasi dugu.

Zer-nola-norekin? galderak hizpide hartuta, bilerak egiten ari gara orain, eta parte hartze polita izaten ari dira saio horiek. **Auzo elkarte bezala, zein behar sumatzen dituzue gaur egun? Urte guzti hauetan egindako lanaren zein balorazio egiten duzu?**

Lokal baten beharra nabarmena da, batez ere ume kopurua handitzen ari delako. Auzoko haur eta gazteek jolasteko gune estalirik ez dute, beraz gune estali baten beharra du gure auzoak.

Bestalde, oso balorazio ona egiten dugu, batez ere urte hauetan guztietan ekintza ugari eraman baititugu aurrera eta gogo hori oraindik ere mantentzen baita. Hogeita bost urte eta gero lanean jarraitzea pozgarria da.

Bide batez, lerro hauek baliatu nahiko genituzke modu batera zein bestera laguntzen gaituzten guztiei eta dei egiten diegu lasarteoriatar guztiei gure auzoko festak gozatzera etor daitezten.



## ZABALETAKO FESTAK - EGITARAUA

### ► Maiatzak 30, asteartea eta Maitzak 31, asteazkena

18:00-20:00: Haurren jolasak eta Antzerkia (31ean)  
 20:00: Gas Gas  
 20:10: Japoniar Bonbak

### ► Ekainak 1, osteguna

18:00-20:00: Haurren jolasak eta oparien zozketa.  
 19:00: Pintxo-potea.  
 19:30: Musika eskolako trikitilariak.  
 20:00: Gas Gas.  
 20:10: Japoniar bonbak.  
 20:15: Erradikalak Gara, antzezlan.

### ► Ekainak 2, ostirala

18:00: Antzerkia eta ondoren txokolotada.  
 19:00: Teresa Sorginaren jaitsiera, txalapartarekin.  
 19:05: Jaien hasierako pregoia.  
 19:15: Dinbi Banda batukada.  
 19:30: Jalgune - Gazte Kluba.  
 20:00: Gas Gas.  
 20:10: Japoniar bonbak.  
 22:00: Kukukaren dantza garaikidea.  
 23:00: Ezinke.

### ► Ekainak 3, larunbata

09:00: Diana.  
 11:00: Zabaletako IV. Sorgin Krosa.  
 12:00: Kukukaren desfilearen hasiera.  
 12:00: Joxe Miguel Aranzadiren oroimenez X. Eskoba txapelketa.  
 15:30: Joxe Miguel Aranzadiren oroimenez X. Mus txapelketa..  
 19:00: Bertso saioa.  
 20:00: Gas Gas.  
 20:10: Japoniar bonbak.  
 20:30: Zikiro afaria.  
 23:00: Zo Zongó - Akelarrea.  
 00:30: Rock gaupasa: The Lobsters, Bar Remigio, Erokomeri, DJ Terexa

### ► Ekainak 4, igandea

09:00: Diana eta auzo garbiketa txapelketa  
 11:00: Kukukaren Euskal Dantza Sorkuntza  
 11:00: Patata tortila txapelketa  
 12:00: Txaranga  
 12:15: Emakumeak harriarekin Pepeneako zaldiaren aurka  
 13:15: Proba misto nagusia  
 14:30: Herri bazkaria  
 17:30: Kantu festa Xumelarekin  
 18:00: Gozategi  
 18:30: Toka txapelketa  
 20:30: Azken traka eta Teresa Sorginari agurra







Elektrizitatea

# GREMIOEN GIDA 2017

*Arreta profesionalena, zugandik gertu*



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21  
600 857 586 - www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)



Igeltseritza



Arkitektura eta Barne-Diseinua



606 37 21 05  
josueigeltseritza@euskalnet.net

Atallu pol. 28  
20170 USURBIL

**Igeltseritza orokorra**  
Estalkien berriztatzeak  
Fatxaden estaldurak  
Barruko berrikuntzak  
Gremioen koordinaketa



- Energia ziurtagiriak
- Eraikinen ITEak
- Aktibitate lizentziak
- Proiektuak
- Erreformak

**borobil**  
arkitektura

Kale Nagusia 27-29 behea  
20160 Lasarte-Oria  
943 50 78 51  
info@borobilarkitektura.eus  
www.borobilarkitektura.eus



SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 14 71  
sugatesukaldeak@gmail.com  
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK



Iturgintza



Kristaldegi eta Leihoak



- ERAKUSKETA ETA SALMENTA
- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria  
943 36 31 47 / 943 37 36 17 52 -  
Taillerra: Oialume bidea 24, Astigarraga  
info@illarreta.com



Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)  
Tel./Fax: 943 36 23 52 - M: 607 234 522

20160 LASARTE-ORIA

- ISPILUAK
- BEIRA APAINGARRIAK ETA ALAKATUAK
- MERKATARITZA-INSTALAZIOAK
- DUTXA-ITXIDURAK
- KRISTALGINTZA OROKORRA



*Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura*

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOAK

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22  
ventanas\_isu@hotmail.com  
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

Hurrengo gida ekainaren 23an.  
Parte hartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 - publizitatea@ttakun.eus

# LOKEko gimnastak bikain Gipuzkoakoan

Gipuzkoako Txapelketa ederra egin dute LOKEko gimnastek. Joan den asteburuan aritu ziren, egun osoz, Eibarko Ipurua kiroldegian. Besteak beste, Alazne Gonzalez Gipuzkoako txapelketa izan da Senior B kategorian.

## Txintxarri

Denboraldiko konpetizio garrantzitsuenak iristen direnean, LOKE taldeko gimnastek beti ematen dute zeresana tapiz gainean. Joan den asteburuan Gipuzkoako txapelketa aritu ziren Eibarren, bikain aritu gainera.

Alazne Gonzalez seniorrak azken urteetan burutzen ari den lan ona berretsi zuen, eta podiumeko koska gorenera igo zen Senior B kategorian. Zinta eta pilotarekin lehiatu zen herritar gaztea.

Senior A kategorian, berriz, joan den urteko txapelketa Aizpea Arroyo aritu zen, zinta eta pilotarekin baita ere. 9. postuan bukatu zuen lasarteoriatarrek.

## Brontzezko domina taldeka

Individualki ederki aritu baziren, taldekako lana ere halakoxea izan zen. Senior A kategorian bost gimnastak hartu zuten parte, pilotekin, eta podiumera igotzea lortu zuten. Brontzezko domina irabazi zuten.

Seniorrak larunbat arratsaldean lehiatu ziren. Goizean berriz, Kadete B mailako taldearen txanda izan zen. Pilota eta uztaiekin euren trebezia erakutsi zuten kirolari gazteek, urtean zehar ikasitakoa berretsiz.



Senior A taldeak meritu handiko brontzea irabazi zuen. MAITE RUEDA

Igandean, bestalde, Tolosako Usabal kiroldegian aritu ziren alebin mailako Landaberri eta Sasotako taldeak, LOKEkoekin entrenatzen dutenak baita ere. 13. eta 19. postuak erdietsi zituzten, hurrenez hurren.

LOKEko gimnasia erritmikoko entrenatzaileak (Naiara, Maite eta Amaia) oso gustura daude euren kirolariek aurtengo Gipuzkoako txapelketa erakutsi duten mailarekin. "Lortutako domina eta sariak podiumean irribarretsu jasotzea da gure satisfazio handiena", esan dute.



Alazne Gonzalez. MAITE RUEDA



Lan txukuna egin dute denboraldi osoan zehar. BELTZAK ZRT

## Gure Etxea Beltzak, zazpigarren Espainiako Txapelketa

16 urte azpikoen taldea ezin izan zen Valladoliden jokaturako txapelketa nagusitu

### Txintxarri

Valladoliden egotea soilik, sari handia zen Gure Etxea Beltzak 16 urtetik azpiko taldeko kideentzat. Euskal Ligan sendotasunez nagusitu ziren, eta horri esker, Espainiako Txapelketa lehiatzeko txartela irabazi zuten.

Hasierako ligaxkan aurkari izan zituzten VRAC Quesos Entrepinares, Alcobendas eta Sitges. Partiduak formatu murriztuan jokatu ziren, 17 minutuko bi zatietan, alegia.

Larunbateko bi norgehiagokak galdu zituen Beltzak ZRT-k, eta hasierako fasea itxiko zuen Sitgesen kontra ere porrota jaso zuten igande goizean.

### Portuense aurkari

Ligaxkako azken postuan amaitu ondoren, zazpigarren postua borrokatu behar izan zuten Atletico Portuense cadiztarren aurka. 17-0

atzetik hasi ziren gipuzkoarrak, eta bazirudien ez zutela garaipenik ikusiko txapelketa.

Momentu zailtan erakusten ohi dute talde bikainek euren benetako aurpegia. Eta hala egin zuten Gure Etxea Beltzak ZRT-k ere.

Bi entsegu lortu eta 17-14ra murriztu zuten andaluziarren errenta. Zaleek ez zioten animatzeari utzi, eta 17-19koa jartzea lortu zuten azkenean.

Taldeko arduradunak "harro" daude gazteek erakutsitako jarrerarekin eta urte osoan zehar egindako lan onarekin.

"Baliteke onenak, indartsuenak, handienak edota joko onena zutenak ez izatea, baina dudarik gabe, onenen artean geunden eta hori asko da", nabarmendu dute. Besterik ez bada, bizipen ikaragarria bizi zuten errugbilari gazteek, Lasarte-Oriak harrobi bikaina duela argi eta garbi utziz.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

KADETEEN 1GO MAILA, KOPAKO FINALERDIKAK

#### Zarautz KE - Ostadar SKT

Larunbata. 12:00. Asti Txiki, Zarautz.

#### JUBENILEN 1GO MAILA

#### Ostadar SKT - Usurbil FT

Larunbata. 12:15. Michelin.

#### JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT, Astrabuduako FT eta CD Audio taldeek hirukoa jokaturako dute igoera lortu ahal izateko.

Larunbata. 17:00. San Lorenzo, Erandio.

### ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

#### Ostadar SKT - Mutriku FT

Larunbata. 15:30. Michelin.

### ARETO-FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA, KONTASOLAZIO FINALA

#### Reformas Lagunak - Indaux

Larunbata. 15:30. M.Chourraut kiroldegia.

HERRIKO TXAPELKETA, FINAL NAGUSIA

#### Kattagorri Insausti - Izkiña

Larunbata. 17:30. M.Chourraut kiroldegia.

### IGERIKETA

ESKOLA ARTEKOA

Buruntzaldea IKTKo igerilari alebinek Euskadiko eskola arteko Kirol jokoak egingo dituzte

Igandea. Mendizorrotza, Gasteiz.

### PILOTA

GIPUZKOAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA, FINAL 16RENAK

#### Adonis (Zazpi Iturri) - Artetxe (Intza)

Igandea. 12:30. Larrunari pilotalekua, Amezketa.

### ATLETISMOA

ESKOLA ARTEKOA

LOKE taldeko atleta alebinak Euskadiko eskola arteko Txapelketa jokaturako dute

Larunbata. Goiz eta arratsaldean, Gasteiz.

EUSKADIKO TXAPELKETA

LOKE taldeko atleta junior eta jubentilek Euskadiko Txapelketa jokaturako dute

Larunbata. Goiz eta arratsaldean. Landako pista, Durango.

### MENDI LASTERKETAK

ZEGAMA AIZKORRI

Imanol Galarraga lasarteoriatarrek Zegama-Aizkorri mendiko lasterketa hartuko du parte.

Igandea. Zegama.

### GIMNASTIKA ERRITMIKOA

EUSKADIKO TXAPELKETA

LOKEko gimnasta Alazne Gonzalezek bakarka hartuko du parte Euskadiko Txapelketa. Senior A taldea ere taldeka lehiatuko da.

Igandea. Egun osoan. Landako, Durango.



Axier Arteaga (gorriz) da Promozioko buruz buruko txapeldun berria. GONZALO SALCEDO (21IGUALES)

## Txapela janzteko moduko finala (22-18)

Axier Arteagak egurrean jarraitzen du 2017an. Promozioko binakako txapela irabazi eta hilabete t'erdia, buruz burukokoa jantzi zuen joan den larunbatean Iruñeko Labrit pilotalekuan, Joanes Bakaikoa 22-18 mendean hartu eta gero

### Txintxarri

Txapela kentzekoa baino, janztekoa izan zen joan den larunbateko finala. Bai behintzat Arteaga II.arentzat. 2017a bere urtea izaten ari dela frogatu zuen berriro ere, Iruñeko Labrit pilotalekuan orduko horretan, majo sufritu eta gero 22-18 irabaziz Joanes Bakaikoa nafarrari. Hilabete t'erdian Promozioko binakako eta buruz burukoko txapelak jantzi ditu aurrelari lasarteoriatarrek. Horrekin aski ez, eta atzo irabazi zuenez, datorren urtean Buruz Buruko Txapelketa Nagusia ariko da.

Gure herritik joandako ehundaka zaleek hauspotuta, bikain ekin zion norgehiagokari Arteagak, konfiantzaz, pilotak gozatu eta behar zenean tantoak ongi bukatuz. Ezer gutxi ahal egin ahal izan zuen Bakaikoak ordura arte. Finalerdietan gertatu ez bezala, garbi agintzen hasi zen Axier Arteaga Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Partiduaren gidoia erabat aldatu zen orduan. Bakaikoa norgehiagokan sartzen hasi zen pixkanaka. Sakea berreskuratzean on egin zion, eta Arteaga zigortu zuen pilotak ezker hormara arrimatuz. Oraindik tanto batzuen aldea zuenez, aurrelari lasarteoriatarrek tantoak bukatzeko arriskuak hartu zituen. Saiatu zen baina ez zuen asmatu. Bakaikoak pixkanaka-pixkanaka jan zion aldea, baina hala ere atsedendira aurretik joan zen, 12-11.

### Segi, lortu arte

Atsedendititik bueltan partidu berri bat hasi zen, orekatua oso. Tanto bakoitza garaipen txiki bat zen bi pilotarientzat. Arteagak

**PROMOZIOKOA IRABAZITA, BURUZ BURUKO TXAPELKETA NAGUSIA JOKATUKO DU ARTEAGAK 2018AN**

serio jokatzen jarraitu zuen. Bakaikoak hamabina berdintzea lortu zuen, baina inoiz ez zen jarri aurretik markagailuan partidua bukatu aurretik. Aurrelari lasarteoriatarrek 15-12 aurreratzea lortu zuen, baina nafarrak berriro berdindu zuen neurketa, 15-15. Orain bai, finalerdietan Jon Ander Peñarekin egin legez, Arteagak bazekien gogotik egin beharko zuela lan txapela janzteko.

Pentsatu, eta egin. Orduan erdietsi zuen Arteagak gerora erabakigarria izango zen tarte, 20-15 aurreratuta. Bakaikoak ez zuen etsi eta 3-0eko partziala sartuta 20-18 hurbildu zen, baina aurrelari lasarteoriatarrek ez zion ihes egiten utzi txapelari. Bigarrena du hilabete eta erdian. Orain arte egin dituenak handiak izan dira, baina hau hasi besterik ez da egin. Zale lasarteoiatarrek atzokoan ere ozen errepikatu zuten bezala, eta kamiseta gorrien serigrafian irakur zitekeenez: "Axi, segi pelotan!".



LOKE Atletismoko talde argazkia. TXINTXARRI

## LOKEko hiru atleta lehiatuko dira eskola arteko Euskadikoan

Roque Etxezarretak, Maialen Parisek eta Unai Somovillak hartuko dute parte EAEko txapelketan

### Txintxarri

LOKEko atleta gaztetxoek EAEko onenen artean lehiatuko dira bihar. Gasteizen jokatuko da eskola arteko Euskadiko atletismo Txapelketa eta herriko taldeko hiru ordezkari hartuko dute parte bertan.

Roque Etxezarreta eta Maialen Paris pisu jaurkiketan arituko dira. Unai Somovilla, bestalde, bi lasterketetan lehiatuko da: 4x80 erreleuetan eta 150 metrokoan

### Fase erabakigarrian sartuz

Aire libreko denboraldia hasi berri dute atletak, baina

pixkanaka, hitzordu garrantzitsuak pilotzen hasi zaizkie. LOKEko entrenatzaile Oscar Goikoetxea pozik da orain arteko emaitzekin.

"Gipuzkoako Ligako lehenengo jardunaldia jokatu dute gazteek, emaitza onak lortuz. Bestalde, taldeko senior batzuk Atletico Bidasoan lehiatu dira utzita, haiek ere lan ona eginez", nabarmendu du Goikoetxeak.

Asteburu garrantzitsua izango da juniorrentzat, halaber. Izan ere, Durangon Euskadiko Txapelketa jokatuko dute taldeko zenbait atletak.

## Lorena Zabalen CD Sumendi, Kopako txapeldunorde

Izotz hockeyeko Erreginaren Kopako txapeldunorde da Lorena Zabala, finala Majadahondaren kontra galdu ondoren

### Txintxarri

Ligako lau talde onenak elkartu ziren Madrilgo Majadahonda hirian: Majadahonda, Boadilla, ASME Bartzelona eta Lorena Zabala lasarteoriatarren CD Sumendi.

Gogotsu ziren talde gasteiztarreko jokalariek Erreginaren Kopari ekiteko. Izan ere, oso lan txukuna egin ondoren, bigarren postuan sailkatu ziren ligan.

Bazekiten "oso lan zaila" zutela. Izan ere, aurretik egindako elkarrizketa batean Lorena

Zabalak nabarmendu zuenez, "Espainiako selekzioa Majadahondako eta Bartzelonako jokalariek osatzen dute, gehienbat".

Hala ere, indartsu hasi zuten txapelketa eta ASME Bartzelona 7-3 hartu zuten menpean. Herritarra norgehiagokaren protagonistetako bat izan zen. 3-2ko gola berea izan zen, ordura arteko berdinketa hautsiz.

Finalean ez zuten zorri handirik izan euskaldunek, eta faborito nagusi zen Majadahondak garaitu zituen, 6-1.



Maurok (argazkian, baloiarekin) bi gol sartu zituen joan den larunbateko partiduan. TXINTXARRI

# Maila mantendu du Ostadar Antoniok

Azken segundora arte sufritu behar izan zuten, baina datorren denboraldian ere 3. Nazional mailan jokatu du Ostadar Antonio Aroztegiak. Goierriren aurka 4-4 berdindu zuten, eta bere bi aurkari zuzenek galdu. Urdin-beltzentzat saria, beraz.

## Iñigo Gonzalez

Euren partiduko azken segundora arte eta beste minutu batzuek ere sufritu behar izan zuten Ostadar Antonio Aroztegi taldeko jokalariek jakiteko azkenean maila mantentzen zuten ala ez. Goierriren aurka irabaztea aski zuten, baina atsedenaldira 3-1 joan ostean eta bigarren zati hasieran laugarrena sartu eta gero, 4-4 berdindu zuten azkenean. Halere, urdinbeltzekin borrokan zebiltzan Lagun Onak eta San Jorgek galdu egin zuten.

Goierrik ez zeukan ezer jokoan; Ostadarrek, berriz, dena. Hil ala bizi. Eta nabaritu zen hori kantxan. Josean Jimenezek zuzendutako taldeak topera ekin zion neurketari, defentsan nekatu gabe presionatuz eta kontraerasora bizkor ateraz. Larunbateko neurketan zortzi gol ikusi zituzten zaleek, baina lehenengoa bezalakorik bat ere ez. A zer nolako gola. Denboraldiko onena ez bada, gertu ibiliko da. Baloi luze bat jaso zuten Maurok, eta

kontrolatu gabe, 'guraize' erremate bat egin zuten baloia sareratzeko. Gogotik ospatu dute 1-0ekoa guztiek. Bosgarren minutua zen.

Handik hamar minutura sartu zuten 2-0ekoa Ostadar Antoniok, Merinoren jaurtiketa indartsu bati esker. Goierrik berehala erreakzionatu eta 2-1ekoa sartu zuten. Atsedenaldira horrela joango zirela zirudienean, Maurok 3-1koa sartu zuten.

Are hobeto hasi zen bigarrena, 4-1ekoa sartu baitzuten urdin-beltzek. Aski zuten emaitza mantentzearekin, baina Goierrik erreakzionatu eta partidua berdintzea lortu zuten. Azkenean, puntu banaketa bi taldeentzat.

Bizkaia aldera jarri ziren begira orduan, Lagun Onak eta San

**OSTADAR 4-1 JARRI ZEN MARKAGAILUAN, BAINA GOIERRIK BERDINDU EGIN ZUEN NORGEHIAGOKA**

Jorgeren emaitzei. Biek galdu egin zuten, Ostadarrek lortu du azkenean maila mantentzea.

## Finala, Kattagorri Insausti-Izkiña

Bi talde horiek jokatu dute herriko areto-futbol txapelketako final handia bihar, Maialen Chorrout Udal Kiroldegian 17:30ean. Kontsolazio finalean, berriz, Indaux eta Reformas Lagunak taldeak ariko dira 15:30tatik aurrera.

Ohi bezala, emozioz eta tentsioz beterikoak izan ziren finalerdiak. Kattagorri Insausti eta Trumoi taldeen arteko dema penaltietan erabaki zen, arauzko denboran bosna berdindu eta gero. Asier Sagasti atezainak bi jaurtiketa geratu zituen. Izkiñak berriz, 4-0 garaitu zuten Aita Amari, eta aurten ere txapelidun izaten saiatuko da.

Finala amaitu ostean, poteoa egingo dute talde guztiek. Festa ordu txikitara luzatuko da, herriko tabernek ordubete beranduago ixteko baimena jaso baitute.



Gogotik saiatu arren, Ostadarrek ezin izan zuten partidua irabazi. TXINTXARRI

## Beste aukera bat daukate oraindik Ohorezko Jubenilek

Ostadarrek ezin izan du lehen aukeran igo Euskal Ligara: 3-2 galdu zuten Ordiziaren aurka Zubietan.

## Iñigo Gonzalez ZUBIETA

Ez zen posible izan. Ostadarrek aukera polita zeukan Euskal Ligara igotzeko joan den larunbatean, baina ezin izan zuten baliatu. Ordizia izan da kategoriaz igo den aurreneko taldea, larunbatean 3-2 irabazita.

Javi Solchagarenek, ordea, beste aukera bat edukiko dute asteburu honetan. Araba eta Bizkaiko ligetan bigarren geratu diren taldeen aurka triangular bat jokatu du. 45 minutuko bi neurketa izango dira. Puntu gehien biltzen dituen Euskal Ligan ariko da 17/18 sasoian.

Goierriko taldeak hobeto ekin zion larunbateko neurketari, eta 10. minutuan sartu zuten 1-0ekoa, faltaz. Ostadarrek ez zuten burua jaitsi ordea, eta atsedenaldira joan aurretik irauli egin zuten markagailua, Borja Mellado eta Samu Ferreiraren golei esker.

## Ezin aldeari eutsi

45 minutura zeukaten ametsa Ostadarreko jokalariek, baina amesgaizto bilakatu zen azkenean. Ordiziak sutsuki bilatu zuten berdinketa, eta baita lortu ere. Binakoak luzapenera bidaltzen zuten norgehiagoka, baina azkenean ez zen jokatu beharrik izan, hamar minutu falta zirenean 3-2koa sartu zuelako jokaldi nahasi batean.

Herriko taldea gogotik saiatu zen hirugarren gola sartzen, baina ez zuten zorterik izan. Gertu eduki zuten, hala ere: Jon Lopez de Lacalleren jaurtiketa indartsua defentsa batek desbideratu zuten.

Zubietan gertatutakoa atzean utzi eta bigarren aukera hau aprobetxatzen saiatuko dira Javi Solchagak zuzendutako mutilak. Joan den astean malko izan zirenak irribarre izan daitezke asteen. Euskal Ligako irribarre.

## Leire Martinek hirugarren postua eskuratu du GIF sarian

Ainhua eta Leire Martin ahizpak GIF sarian lehiatu ziren Anoeta kiroldegian pasa den asteburuan. Froga ezberdinetan eskuratutako puntuaketa esker, hirugarren izatea lortu zuten Leirek sailkapen orokorrean. Lan txukuna egin zuten biek parte hartutako frogetan.

Buruntzaldea IKTko igerilari infantil, junior eta absolutuek,

bestalde, Udaberri Ligako bigarren jardunaldia jokatu zuten Ordiziako Majori kiroldegian.

Arduradunek nabarmendu dutenaren arabera, harro egoteko lana egin zuten denek. Besteak beste Mikel Esnalek eta Haitz Mitxelenak euren marka pertsonalak hobetu zituzten, 50 tximeletan eta 200 estiloetan, hurrenez hurren.

Nahia Jie Villamedianak, berriz, taldeko 16 urteen azpiko marka hautsi zuten 200 estiloen frogan.

## ZORION AGURRAK




**Maddi**  
Zorionak Maddi! 4 urte bete dituzu gurekin, zoragarriak! Asko maite zaitugu! Oier, Unax, aita eta ama



**Naroa**  
Urte askuan bonbon, segi horrela etxeko sorgina, muxus.



**Enaut**  
Zorionak guapo! Hamalau besarkada handi eta ondo pasa zure urtebetetzean! Oier, aiton-amona eta familiaren partetik bihotzez.



**Ane**  
Zorionak printzesa zure hirugarren urtebetetzean! Asko maite zaitugu aita eta ama. Muxu asko familiaren partetik!



**Ekhi**  
Zorionak goxoki!!!



**Sergio**  
Zorionak Sergio!! Gozatu zure urtebetetze eguna. Muxu asko gurasoen eta Alvaroren partez. Maite zaitugu!!



**Jare**  
Zorionak politta!! 4 urte handi bete dituzu eta zurekin ospatzeko irrikitan gaude!! Muxu erraldoiak familikoaren partetik.



**Markox**  
Zorionak Marisorgin!! Ea lortzen dugun zurekin eta Jack Danielsekin "breikin-dans" pixka bat egitea urtea amaitu aurretik!!!!

## Urte askotarako!

3 bide daude zorion agurra bidaltzeko:

**Internet**

Txintxarri.eus-en [txintxarri.eus/zorionagurra](http://txintxarri.eus/zorionagurra) eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.

**Posta elektronikoa**

[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

**Bulegora**

Etor zaituz Txintxarriko bulegora edo deitu 943 37 14 48 telefonora.

## SUDOKUA

	8			9		2		
				8				
9		2	5	4	1			
3	6	7			5			
					6	3		
5		1		3			6	2
7		8		5		9		
		6	7		9	8		4
		9		6	8		1	

## GUTUNA

## Eguzkik Lemoizen eskatzen du "historiarekin bat datorren erabilera"

## EGUZKI TALDEA

Lemoizko zentral nuklearrak okupatzen dituen lursailei "historiarekin bat datorren erabilera" emateko eskatzen du Eguzkik. Eta, talde ekologistaren iritziz, horretarako Basordako kala naturaren aldetik ahal den neurrian lehengoratu beharko litzateke eta bertan parke publiko bat eratu, beharbada memoria-leku gisa. Eguzkik ez du beste erabilierarik baztertzeko, baina betiere lehengoratzearekin eta erabilera publikoarekin bateragarri den heinean. Nolanahi ere, lursail horiei ematen zaien erabilera edozein dela, taldek aholkatzen du erabakia aldebakarra ez baizik eta ahal den adostasun sozialik zabalaren ondorio izatea, memoriak horretarako ere balio beharko luke eta.

Kala lehengoratzea eta erabilera publikoa ematea ez dira inola ere helburu arbitrarioak. Alde

batetik, zentrala itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan eraiki zen, egun ere balio natural handia duen paraje batean. Jabariaren lagapena proiektu jakin bat eraikitzeke egin zen. Proiektu hark ez zuen aurrera egin, beraz, lagapena bertan behera geratu zen, eta, ondorioz, kala lehengoratu egin behar da. Legeak ere hori babesten du. Beste aldetik, erabilera publikoa bidezkoena da, ez baita begi-bistatik galdu behar herritarrek bere beren poltsikotik ordaindu dituztela zentralaren instalazioak, urreprezioan ordaindu ere. Gogora dezagun...

Lemoizko zentrala bertan behera geratu zen 1984ko moratoria edo luzamendu nuklerraren ondorioz, Valdecaballeros eta Trillo II zentralekin batera. Orduan, Estatuak hiru konpainia elektrikori, tartean Iberduerori, zentral horietan 2.300 milioi euroko inbertsioa egin izana aitortu zien, eta, inbertsio horren kalte-ordain gisa, argindarraren ordain-agirietan hainbesteko

bat gehiago kobratzeko baimena eman zien. Segun eta zein den iturria, kopuruak aldatzen dira, baina lasai asko esan dezakegu urte hauetan guztietan, 2.300 milioi euro haien truke, herritarrok 6.000 eta 9.000 milioi euro bitartean ordaindu ditugula argindarraren erreziboan bitartez. Beraz, Lemoizko instalazioak geure patrikatik ordaindu ditugu, ederki ordaindu, gainera. Jaurlaritzak orain instalazio horiek guztiak bere egiten baditu, gaizki egingo luke, gure ustez, aurrekariak zein diren kontuan izan gabe jokatu balu, eta erabilera emango balie bide arruntago baten bidez eskuratutako beste edozein ondasun balira bezala.

Eguzkiren iritzi hauek guztiak ez dira berriak. Eguzkik berak eta, oro har, Euskal Herriko Mugimendu Ekologista eta Antinuklearrak gai honi buruz historikoki izan duten jarreraren segida baino ez dira. Baina berriro plazaratzeko une egokia dela uste dugu. Izan ere, EAJk eta PPK Estatuaren 2017ko aurrekontuak aurrera ateratzeko

izenpetu duten akordioa dela eta, badirudi Lemoizko zentrala "berehala euskal erakundeen esku" geratuko dela, eta horrek hainbat espektatiba piztu ditu.

Hainbeste urte pasa eta gero EAJk gai hau horrelako akordio batean sartu izanak Eusko Jaurlaritzak buruan proiektu zehatzen bat baduela aditzera ematen du. Aste honetan bertan zenbait komunikabidek Basordan akuikultura-proiektu bat eta Bimep kokatzeko aukera aipatu dute (energia elektrikoa sortzeko olatuen indarrak baliatzen den plataforma da Bimep).

Eguzki ez da orain hasiko proiektu zehatz horiek baloratzen, baina berretsi nahi du: gure ustez, Lemoizko zentralen edozer egiten dela ere, bateragarri beharko luke izan kala lehengoratzeke eta erabilera publikoa emateko helburu nagusiarekin; eta erabakia, edozein dela ere, ez dadila izan aldebakarra, ahal den adostasun sozialik zabalaren ondorio baizik.

## OHARRAK

## Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, maiatzaren 29an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

## BBS/RCP doako tailerra Usurbilen

Ongizatea eta Osasuna sustatzean egiten duen lanaren barruan, DYako Irakaskuntza Eskolak doako tailerrak eskainiko ditu, Bihotz Biriken Suspertzearen (BBS) teknika ikasi nahi duenari zuzendua. Edozein adinekoentzat, bai osasun formakuntza izan ala ez. Bihotz-arnasketako geldialdia identifikatzen, oinarriko bihotz-biriken suspertze (BBS) mugimenduak burutzen eta DEA (Kanpoko desfibrilagailu erdi-automatikoak) erabiltzen ikasten da. Data ekainak 8, osteguna, 16:00etatik 18:00etara. Jarduera guztia Usurbileko DYako Ordezkaritzan emango da, Muna-Lurra, 26. Izena eman edo informazio gehiago beharrez gero, deitu 943 46 46 22ra.

## AZOKA TXIKIA

### 1. ETXEBIZITZA

#### 102. ALOKAIKUAN EMAN

Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649526766

Txalet eder bat alokatzen dut Huelvako hondartzan. Guztiz hornituta dago. 943376115.

### 2. LANA

#### 202. ESKAERA

Orduka lan egin nahi duen emakumea naiz. Ordu kopuru jakin bat lan egiteko ere prest nago, baita gauetan aritzeko ere. 634278198

Pertsona helduak zein haurrak zainduko nituzke gauz edo asteburuetan. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. 671763558

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest 631184453

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Interna bezala ere lan egiteko prest 631655499

Emakumea eskaintzen da adineko pertsoan zaintzeko. Asteburuetan, jaiegunetan zein gauetan lan egiteko prest. 606661048 / 943-404015

### 3. BESTELAKOAK

#### 101. SALDU

Garaje marra saltzen dut Atsobakar etorbidean (Landaberri ikastola parean) 615733576

Garaje marra alokatzen dut Donostian (Ondarretan) 645706658


Bi plazako garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalena. 686674552

Garaje marra alokatzen dut Atsobakarren, Golf plazan, Garaikoetxea eskolaren parean. Autoarentzat edo motorarentzat egokia. Handia eta sarbide onarekin. 659 02 19 45

### 102. EROSI

8-10 urteko sorgin dantzako alkandora baldin baduzu erosiko nituzke. 670822802

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

\*Eskola egunetan

## JAIOTAKOAK

**Eithan Estupiñan Caballero.** Maiatzaren 17an.  
**Nile Wilchez Intxausti.** Maiatzaren 17an.  
**Vega Altuna Fernandez.** Maiatzaren 18an.  
**Cloe Rodriguez Herrero.** Maiatzaren 20an.

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
 EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
 KIROLDEGIA: 943 376 182  
 MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
 GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
 KIUB: 943 361 605  
 UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
 MUNTTERI AEK: 943 372 863

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
 DYA: 943 464 622  
 GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
 UDALTZAINAK: 943 362 442  
 ERTZAINZTA: 943 288 888  
 SOS DEIAK: 112

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 26 DE MIGUEL  
 Larunbata, 27 GIL  
 Igandea, 28 GIL  
 Astelehena, 29 LASA  
 Asteartea, 30 GIL  
 Asteazkena, 31 ACHA-ORBEA  
 Osteguna, 1 DE MIGUEL

### EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

## ESKELAK

### ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 20160 LASARTE-ORIA  
 G-20407557

### Erredakzioa

Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,  
 Martin Vicioso, Lorena Lujanbio

### Publizitatea

Aranbix Zulaika.

### Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
 Ane Labaka, Mailu Arruti,  
 Asier Odrozola, Maider Seguro,  
 Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
 Edu Galardi

### Informatikoa

Xabier Amadoz

### Administraria

Nerea Garciaarena

### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (106)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (104)  
 WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua:

SS-513/94  
 ISSN: 1134-0053  
 Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
 UDALA

LAGUNTZAILAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAIALA  
 Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia



## KOMIKIA



## BITXIKERIA

# Goiegi jatetxearen azken egunak 67 urte eta gero

Maiatzaren 28an itxiko ditu ateak Lasarte-Oriako Goiegi jatetxeak. Aitziber Martiarena eta Juan Luis Eizmendirekin izan gara urte guzti hauetako erreposoa egiteko

## Lorena Lujanbio

Hiru belaunaldi eta 67 urte ondoren, igandean izango da Goiegi jatetxean egin ahalko den azken otordua.

1950. urtean hasi zen gaur egun arte iraun duen jatetxea, baina 1610. urtean sortutako baserrian hasi zen historia. Aitziber eta Juan Luisen amona gazte alargundu ondoren, etxeko gelak alokatzen hasi zen 6 seme-alabak aurrera atera ahal izateko; barrez komentatu izan diote Juan Luisi 'Portugal' izenez ezagutzen zen gela bitxian izandakoak zirela herritar batzuk. Amona Donostiako etxe batean eta Lasarte-Oriako golf kluban izandako lanaldian trebatu zen sukaldaritzan 13 urte zituenetik, eta hasiera batean, 50. hamarkadan, bakailao kazola izan zen



Aitziber Martiarena eta Juan Luis Eizmendi Goiegi jatetxean. TXINTXARRI

Goiegiko izarra; gaur egun ez bezala, bezeroek beren haragia eramaten zuten jatetxera, bertako parrilan egiteko, eta amonak edaria eta bakailaoa kobratzen zien. Ostalaritza asko aldatu da urte guzti hauetan eta Goiegik ederki jakin du egokitzen; arraroa dirudien arren, eguneko menuen eskaintza berria da ostalaritzan eta Lasarte-Oriako Institutua ireki zenean hasi zen Goiegi eguneko menua kontzeptua barneratzen bertako irakasleei egunero jaten emanez.

Urte guzti hauetan izandako jardueran, Goiegi sagardotegia ere izan zen. Baserriak tolar bat zuen ondoren sua hartu zuen alderdian. Garai hartako Lasarte-Orian zeuden 11 sagardotegien artean zen Goiegi. Bertako produktioa baserrian zituzten sagastiekin eta inguruko baserriak sagarrek egiten zen, ondoren ekoizpenaren parte baten truke.

1986. urtean berreraikitze lanak egin ziren, gaur egun ezagutzen dugun Goiegi bihurtuz. Juan Luisek gogoratu du, jatetxeak eta Lasarte-Oriako udalerrriak adin berdina dutela, eta San Pedro jaietan ireki zutela Goiegi berria. 31 urte daramatza, beraz,

gaur egungo jatetxeak lasarteoriarren artean.

Aitziberrek dioen bezala, geroz eta gutxiago dira Goiegik duen eskaintzaren pareko jatetxeak herrian eta inguruan: jatetxe handiak, lehen mailako produktuak, eta kalitatezko zerbitzua. Azken egun hauetan jende ugari izan da jatetxean azken jatordurako erreserba egiteko, baina batez ere, eskerrak emateko.

Aitziber eta Juan Luisek komentatu dutenez, itxiera berriaren aurrean herritik jasotako mezua guztiz positiboa izan da. Hasiera batean, zurrumurruak zabaldu zirenean, harriduraz gerturatzen zen jendea, ezin sinisturik. Erabakia hartu zenean eta amaiera ofiziala egin zenean, berriz, esker ona besterik ez dute jaso.

Amonaren hasieretatik eta gaur egungo Goiegi izan arte, beraientzat etxeko gertakari bihurtu dira urte guzti hauetan izandako bizipenak eta pena handiz agurtuko dutela diote. 67 urte hauetan bezero asko eta langile asko izan dira Goiegiren parte eta guzti hauei eskerrak eman nahi dizkiete Aitziber eta Juan Luisek Goiegiren izenean.

2 mō betaurreko:

Gama altuko progresibo  
+  
eguzkitako progresiboak

197€

[www.multiopicasgipuzkoa.com](http://www.multiopicasgipuzkoa.com)

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA  
ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE**

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan